

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobemu Kontseiluak 2025eko uztailaren 1eko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena

— **Foru dekretua:**

NEKAZARITZA SAILA

26/2025 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahatsaren sitsari (Lobesia botrana) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntza arautzen duten oinarriei, baita 2025erako deialdiari ere.

— **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

384/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea irabazteko xederik gabeko erakundeek enplegurako prestakuntza (zabalkunde jardunaldiak) emateko laguntza lerroaren 2025eko deialdiaren (Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2025 Erabakia, otsailaren 4koa) ebazpenari.

385/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea irabazteko xederik gabeko erakundeek enplegurako prestakuntza (enplegurako prestakuntza ikastaroak) emateko laguntza lerroaren 2025eko deialdiaren (Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 4ko 42/2025 Erabakia) ebazpenari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

386/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Asparrenean lursail bat erostea Aizkorri-Arazko Parke Naturalean eta KBEan aparkaleku bat eraikitzeari, Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia planaren esparruan.

387/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Ikerketa Soziologikoen Kontratua" izeneko partida, 2026. eta 2027. urteetan, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak hala eskatuta.

388/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea M_T00/2025/0000000056 kreditu transferentziaren espedienteari, 53.000,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Babesletza Kontratuak" eta "Arabako Merkataritza Ganbera: nazioartekotzea eta Great Wine Capitals" partidak, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

389/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoa osatzen duten erakundeen 2026rako aurrekontu orokorrak egiteko jarraibide tekniko eta ekonomikoei.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

390/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea herri-tarren parte hartzeari eta lankidetzari buruzko 2024ko txostena jasotzeari.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

391/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Araban enpresa berriak sortzeko eta finkatzeko (Ekin Araban 2025) laguntza lerrorako deialdiaren (Foru Gobernu Kontseiluaren 727/2024 Erabakia, abenduaren 10ekoa) ebazpenari.

392/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea "Arabako Parke Naturalen Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana 2023 / Eguzki eta Hondartza Turismo Urdina Plan Nazionala 2023" gauzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako hitzarmena (Foru Gobernu Kontseiluaren 453/2024 Erabakia, uztailaren 23koa) aldatzeko gehigarri bat sinatzeari.

393/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea So-brongo zundaketa hornidura hodia berritzeko proiektua eguneratzeko lanen kontratuaren 2023ko eta 2024ko betearazteke dagoen zenbatekoa esleitzeari. Kontratu hori Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 14ko 732/2023 Erabakiaren bidez adjudikatu zen.

394/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 754/2024 Erabakian dagoen hutsa zuzentzeari.

395/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Ingu-rumen Kalitatearen Zerbitzuari obra hidraulikoen arloan ingeniartzeko laguntza teknikoa ema-teko zerbitzuaren kontratuaren bigarren luzapena aldatzeari (1. sorta – hornikuntza).

GIZARTE POLITIKEN SAILA

396/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea egoitza zentro baterako eraikin baten gauzatze eta jarduera proiektua idazteko eta hura eraikitze-ko kontratuaren obra bukaeraren ziurtagiriari, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsek finan-tzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

397/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Ara-bako Lurralde Historikoan AP-68 autobidea kudeatzeko Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Bideak SA (Arabat) sozietatearen artean egindako zuzeneko kudeaketako hitzarmenari.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

398/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Ara-bako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko dirulaguntzen deialdiari.

NEKAZARITZA SAILA

399/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Tec-nología y Servicios Agrarios, SA SME MP. (Tragsatec) izeneko enpresari enkargua egiteari, etxeko animalien edo Arabako Lurralde Historikotik datozen beste animalia batzuen gorpuen tratamendurako zerbitzua emateko 2026ko ekainaren 30era arte.

400/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan nekazari gazteak ezartzeko laguntzetarako deialdiaren ebazpenari, zeina Foru Gobernuaren Kontseiluaren otsai-laren 11ko 77/2025 Erabakiaren bidez onetsi baitzen.

KULTURA ETA KIROLAREN SAILA

401/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Teresa García Miravalles Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargurako izen-datzeari, lanpostuaren titularra ez dagoelako.